CIRCULAR THINKING

EUSKADI, EKONOMIA ZIRKULARRERANTZ
EUSKADI, HACIA LA ECONOMÍA CIRCULAR

# EUSKADI 2030erako EKONOMIA ZIRKULARRAREN ESTRATEGIAREN ARDATZAK




EUSKO JAURLARITZA
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Euskadik 48 milioi tona material kontsumitu zituen 2016an, eta horien % 70 material inportatuak ziren. Gainera, 6 milioi tona hondakin sortu zituen, eta horien % 54 birziklatu zuen. **Ekonomia zirkularrago batera zuzendutako trantsizioak** aukera handiak eskainiko lituzke lurraldearentzat, eta norabide jasangarriago batean aurrera egitea ahalbidetuko lioke.

Eusko Jaurlaritzaren helburua da Euskadin modu jasangarrian bizi eta hazi ahal izatea, ekonomiaren zirkulartasun handiagorantz aurrera eginez eta ekonomia linealaren eredua atzean utziz.

Ekonomia Zirkularraren 2030erako Estrategiak eskualdeko lehiakortasuna bultzatuko du, enpleguaren sorrera sustatuko du eta Euskadiko jasangarritasunari lagunduko dio.

# EUSKO JAURLARITZAREN EKONOMIA ZIRKULARRARI BURUZKO TXOSTENAK

## EKONOMIA ZIRKULARRAREN DIAGNOSTIKOA EUSKADIKO INDUSTRIAN (2018)




- Enpresentzat, ekonomia zirkularrak eta materialen erabilera eraginkorrak nabarmen hobetu ditzake haien lehiakortasun-egoera, errentagarritasuna eta jasangarritasuna.
- Azken urteotan, Euskadik Ekonomia Zirkularreko irtenbide berritzaileei buruzko ezagutza handia metatu du.
- Euskadik baditu trantsizioa bultzatzeko tresna publikoak , eta baita lankidetza publiko-pribatuko kultura finkatu bat ere.
- Ekonomia Zirkularraren alorrean, bost lehentasunezko ildo identifikatu dira euskal industriarentzat: ekodiseinua; birmanufaktura eta konponketa aurreratua; zerbitizazioa; funtsezko metalak dauzkaten hondakinen birziklapena; eta plastikoak.

## EUSKADIKO EKONOMIA ZIRKULARRAREN ADIERAZLEAK (2018)




- Europako jarraipen-esparruaren adierazleak Euskadirentzat garatzea eta adierazle osagarrien multzo bat gehitzea.
- Birziklapen-prozesuak hobetzeak eta ondorioz material birziklatuaren fluxua handitzeak murriztuko lituzke inportazioen beharra eta bertoko baliabide naturalen erauzketa, eta, hortaz, lagungarria izango litzateke ekonomia zirkularrarako.

## LEHIAKORTASUNA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA (2018)




- Ekonomia Zirkularraren aukeren potentziala aprobetxatu gabe dago.
- Birmanufakturari lotutako aukera da gutxien garatuta dagoena, eta ekodiseinua gehien finkatu dena.
- Estrategia horien inplementazioaren bidez lortu litzaketen aukera lehiakorrak ikusten dituzten enpresek finantziazioa behar dute.
- Ekonomia Zirkularraren printzipioei lotutako aukerek handitu dezakete sektore batzuek etorkizunean pertsonala kontratatzeko duten erakargarritasuna.

## EKONOMIA ZIRKULARRA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA EUSKADIN (2018)




- Hondakinen kudeaketak ahalbidetzen du ekonomia zirkularraren zirkulua ixtea .
- Aztertutako lehentasunezko korronteak: Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak, Tamaina handiko hondakinak, Galdaketako hareak, Altzairutegiko zepak.
- Lehentasunezko korronteetan, ekonomia zirkularreko neurrien kostu-mozkin balantzeak 4,5 MM €-ko emaitza positiboa du, eta 95 lanposturen sorrera garbia.

# IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

## Misioa

**Euskadiko trantsizioa bultzatzea ekonomia zirkularrago baterantz, berrikuntzaren, ekintzailetzaren eta lankidetza publiko-pribatuko eredu baten bitartez, herritarrak, enpresak eta Administrazioak helburu komun baten lorpenean inplikatuz.**

## Ikuspegia

Euskadi ekonomia zirkularraren **erreferente den eskualde** gisa kokatzea **europar eremuan,** ingurumenarekiko errespetua **jasangarritasun, lehiakortasun eta enplegu-sorreraren** funtsezko faktore bihurtuz eta **hazkunde ekonomikoa desakoplatuz baliabide naturalen kontsumotik, hondakinen sorreratik eta berotegi-efektuko gasen emisiotik.**

## Euskadiko Ekonomia Zirkularraren 2030erako Estrategiaren eskema



# 2030erako HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Produktibitate materiala** % 30 areagotzea.
- **Material zirkularraren** erabilera-tasa % 30era igotzea.
- Barne-produktu gordin unitate bakoitzeko **sortutako hondakinen** tasa % 30 murriztea.
- Elikagaien xahuketa **erdira** murriztea.
- Plastikozko ontzien **% 100** birziklagarria izan dadin lortzea.

# Balioak

5 balio hauek definitu eta orientatzen dute **Euskadiko Ekonomia Zirkularraren 2030rako Estrategia:**

- **Jasangarritasuna**
- **Konpromisoa**
- **Berrikuntza**
- **Lankidetza**
- **Efizientzia**

Denbora-horizontea: 2030

## 3. HELBURUAK

Zer helburu **lortu** nahi dira 2030ean?

Lehiakortasunari, jasangarritasunari eta enpleguaren sorrerari buruzko **helburuak ezartzea,** identifikatutako erronkak oinarritzat hartuta

Denbora-horizontea: 2030

## 4. JARDUERA-EREMU ETA -ILDOAK

Zer lan-eremu eta -ildoren inguruan **egituratuko da** estrategia?

Definitutako helburu estrategikoak lortzea ahalbidetzen duten **jarduera-eremu eta -ildoak definitzea**

Denbora-horizontea: 2025

## 5. EKINTZAK

Zein dira jarduera-eremu bakoitzean **heldu** behar zaien ekintza konkretuak?

**Ekintza Plan bat garatzea** 2025rako, definitutako helburuen lorpenerantz aurrera egiteko

# JARDUERA-EREMUAK ETA -ILDOAK

| EREMUA | JARDUERA-ILDOAK | EKINTZAK 2025 |
|---|---|---|
| Lehiakortasuna eta berrikuntza | 1. Negozio-eredu zirkular berriak | 1.1. Negozio-eredu berriak<br>1.2. EMPRENDE CIRCULAR programa<br>1.3. BASQUE CIRCULAR HUB prestakuntza-nodoa<br>1.4. Maila ertaineko prestakuntza<br>1.5. EZ goi mailako heziketan |
| | 2. Berrikuntza eta teknologia berriak ekonomia zirkularraren alorrean | 2.1. Berrikuntza ekonomia zirkularrean - ZTBP<br>2.2. RIS3 Estrategia - Fabrikazio Aurreratua<br>2.3. Ekonomia zirkularraren alorreko adituen foroa<br>2.4. EZ politika publikoetan<br>2.5. Zaintza Sistema<br>2.6. Ingurumen-aztarna etiketatzea |
| | 3. Material jasangarri berriak | 3.1. Material berriei buruzko ikerketa<br>3.2. Ezagutzaren transferentzia<br>3.3. Basogintzako Bioekonomiaren Estrategia<br>3.4. Material birziklatuak eta berriztagarriak<br>3.5. Material-fluxuak eta bizi-zikloaren kudeaketa |
| Ekoizpena | 4. Produktu eta eraikinen ekodiseinua | 4.1. Nazioarteko posizionamendua<br>4.2. Balio-kate berriak<br>4.3. BASQUE ECODESIGN CENTER bultzatzea<br>4.4. Eraikuntza industrializatua<br>4.5. Ingurumen-estandarrak |
| | 5. Fabrikazio zirkularra | 5.1. Plataforma digitalak eta alerta-programa<br>5.2. EUSKADI REMANUFACTURING prestakuntza-programa<br>5.3. Jardunbide egokia. Emisioen zuzentaraua<br>5.4. Bigarren eskuko produktuak biltzea eta saltzea<br>5.5. Eraikinak eraistea, zaharberritzea eta mantentzea<br>5.6. Teknologia berrien euskal zerrenda |

| EREMUA | JARDUERA-ILDOAK | EKINTZAK 2025 |
| --- | --- | --- |
| Kontsumoa | 6. Kontsumo zirkularra | 6.1. Erosketa eta Kontratazio publiko berdearen Programa<br>6.2. Erosketa eta Kontratazio pribatu berdeari buruzko borondatezko Akordioa<br>6.3. Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa<br>6.4. Ingurumen-azterketa eta bizi-zikloaren kostuak |
| | 7. Elikagaien alferrikako galera | 7.1.Elikagaien kontsumo arduratsua<br>7.2. Aprobetxatzea eta ematea<br>7.3. Azpiproduktuak erabiltzea |
| | 8. Plastikoen kontsumoa | 8.1. Hondakin plastikoak eta birziklapena<br>8.2. Plastikozko ontzi eta bildukiak murriztea<br>8.3. Herritarrak kontzientziatzea<br>8.4. Plastiko sekundarioentzako sostengua |
| Hondakin eta Lehengai Sekundarioen Kudeaketa | 9. Hondakinen kudeaketa jasangarria | 9.1. Hondakinak tratatzeko teknologia berriak<br>9.2. Praktika berriak hondakinen bereizketa eta prestaketaren alorrean<br>9.3. AAPPen hondakinen kudeaketa hobetzea<br>9.4. Finantza-tresnak |
| | 10. Lehengai sekundarioak | 10.1. Material birziklatu eta berriztagarrien gidak<br>10.2. Lehengai sekundarioen merkatua<br>10.3. Birziklapen sektorea bultzatzea<br>10.4. Funtsezko lehengaiak ordeztea<br>10.5. Sinbiosi industriala |



**www.ingurumena.eus**

**www.ihobe.eus**

—

**estrategiaec2030@ihobe.eus**

—